



Santos Iñurrieta

Jolasaren askatasuna



Xabier Gantzarain
@gantzarain

'KE USTED LO PASE BIEN' SERIEKOA (2013)

Olioa oihalean. 200 x 200 cm

Jaioterrira itzuli zen iaz,aldi baterako bederen, Santos Iñurrieta de la Fuente (Gasteiz, 1950eko uztailearen 8a), Artiumen erakusketa eduki baitzuen, pasa den urtarrilaren 7ra arte, ikusi nahi zuen ororen gozamenerako.

Mallorcan bizi da 90eko hamarkadaz geroztik. Nabari du argian, berotasunean, giroan. Inbidia ematen du. "Goizeko seiak inguruan jaiki ohi da. Kafe bat edan eta paseatzera ateratzen da Menutekin. Etxera itzultzean beste kafe bat hartzen du, oraingoan Joanarekin eta txakur-talde guztiarekin. Porrutxo bat erretzen du. Gero, aldi berean margotzen ari den bospasei koadroei begira

egon ondoren bati heltzen dio. Hamar ordu baino gehiago ematen ditu horretan egunean". Halaxe dio bere biografiak, *Ke usted lo pase bien* erakusketako katalogoan. Inbidia ematen du.

Festa bat zen bere erakusketa, jendez eta animaliaz eta pintorez eta komikietako pertsonaiez eta izaki bitxiz betea, denak formatu handiko lanetan barreiatuak, koadro bakoitza, eta are erakusketa osoa, inoiz ezagutu den martioskarik handiena bailitzan, jendeen barruan jende gehiago, etxeen barruan etxe gehiago, paisaien barruan paisaia gehiago. Inoiz agortzen ez den mundu bat, inoiz agertzen ez den bezala emana.

"Maite dituen guztiak gonbidatu ditu artistak festara eta triptiko handi haue-tan elkartu ditu". Francisco Javier San Martinek idatzi du katalogorako testu nagusia. "Iñurrietaren festara gonbidatuta daudenak, alor kubista-fauvista-metafisikokoak dira gehienak, baina lotzen dituen elementu aglutinatzaileak -bilbe narratiboa- gertuago dago itxuraz surrealismotik, ideia-asoziazio automatikotik eta oihaleko espazioaren okupazio irrazional eta elkar gurutzatutik".

Artistaren jolaserako askatasun erabatekoak kaleidoskopio miragarria dakar. Eta argia, berotasuna, festa. ■